

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Agenda 21eko Foroa Abenduaren 2an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean

18:30etik 20:00etara

Tailerraren laburpena, 4 lerrotan:

- *Eguna, ordua, tokia:* abenduaren 2an, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxean.
- *Parte-hartzaile kopurua:* 20 pertsona.
- *Aztertu diren gai nagusiak:*
 - Azaroaren 4an natur ondareari buruz egin zen azkeneko tailerraren gaineko iruzkinak.
 - 2010ean, Legazpiko Agenda 21eko Foroan egin den lanaren ebaluazioa.
 - 2011. urtean Foroak landu nahi dituen gaiak eta ekintzak lehenestea.

Gaurko *Agenda 21eko tailerra berezia izan da eta zertxobait kaotikoa*. Eta arrazoiak daude horretarako! Legazpiko Udalak eta udalerriak iraunkortasunarekiko duen konpromisoak saria jaso du eta hemen izan dira EITBko kamerak eta mikrofonoak. Bestetik, urteko azkeneko tailerra izan da eta gura hausnarketak bizkotxoekin eta zuku ekologikoarekin lagundu ditugu.

Beraz, denbora eta gaiak aztertzeko aurreikusi den planteamendua beste erritmo batean joan dira baina..., malgutasunarekin, helburuak lortu ditugu eta, batik bat gaur, tailerraz gozatu dugu eta irribarre ugari konpartitu ditugu! Oraintxe ikusiko dugu!

● **Zorionak!!!** Legazpi, 2010eko Udalsarea 21 saria.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

A zer nolako berria tailerrari hasiera emateko!

Inma Hernandez teknikariak eta Sote Plazaola alkateak adierazi digutenez, Legazpiko Udala 2010eko Udalsarea 21 saria jaso duten bost udaletako bat izan da. Hauek izan dira besteak: Amurrio, Azpeitia, Amorebieta-Etxano eta Mallabia. Gure saria aldaketa klimatikoaren kategorian sartu da.

Epaimahaiak Legazpin egin diren ekimen desberdinak onartu eta saritu nahi izan ditu. Batetik, "Pisuzko arrazoiak: Legazpin, autorik eta hondakinik gabe, ingurumenaren alde" kanpaina. Gogora dezagun kanpainaren helburua udalerrian erosketak egitean hondakinak eta auto pribatuaren erabilera murriztea izan zela. Eta bestetik, xehekako merkataritza tradizionalen produktu ekologikoen gainean prestakuntza espezializatua eskaintzeko eta produktu horiekiko sentsibilizazioa lantzeko egin den ekimena.



Beraz, *zorionak!* bi ekintza horietan protagonista izan direnei; batik bat honako hauei:

- Legazpiko merkatariei, kontsumo berdea sustatzeko aitzindari izan den ekimena eraman dutelako aurrera.
- Legazpiarrei, eguneroko ohiturekin ingurumenarekiko gero eta kontzientzia gehiago dugula erakutsi dutelako: gehiago erabiltzen ditugu erosketetarako orgak eta poltsa berrerabilgarriak, produktu ekologikoei buruz galdetzen dugu eta gehiago eskatzen ditugu....

Baina, bidea luzea da oraindik! Eta horrela adierazi digu Apatxo liburu-dendako Mailok, ekimenean parte hartu duen merkataritza-taldearen izenean: *orain lanean jarraitzea da inportantea, merkataritza eta legazpiarrik elkarki lagunduz udalerrira iraunkorren eredu izaten jarrai dezagun*. Eta horretarako erabiliko dugu sariaren dirua, 3.000,00 €, Udalak diru hori merkatariekin daraman ekimen horri jarraipena emateko erabiliko baitu.

Legazpi, 2010eko Udalsarea 21 saria, komunikabideetan:

Honako loturetan irakurri, ikusi eta entzun dezakezue:

- **EITBko bideoa** (2010eko abenduaren 4ko Teleberrin azaldu zen):
<http://www.eitb.com/videos/noticias/sociedad/detalle/557680/ayuntamientos-vascos-premiados-su-labor-favor-medioambiente/>
- **Berria Interneten:**
http://www.udalsarea21.net/pags/AP/AP_Noticias/hemeroteca.asp?cod=F8E655A7-910B-4AF0-850C-8CE4F3618866&hId=55484271-6A0E-457C-A7B9-C0E01B152A63&hIdIdioma=C
- **Berria egunkarietan:**
<http://www.diariovasco.com/v/20101203/alto-urola/premio-udalsarea-fruto-trabajo-20101203.html>
<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2010/12/02/sociedad/euskadi/los-premios-udalsarea21-distinguen-a-legazpi-y-azpeitia>

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Tailerrean parte hartu duten pertsonak

Saria ospatu ondoren, bidezkoa da gaurko tailerrean gurekin berriro izan zareten (eta badira honezkero 5 urte!) guztien konpromisoa eta parte hartzea eskertzea.

Eskerrik asko benetan, beste udalerrietarako ere eredu izateagatik.

Junkal Fernandez ♦ Floren Gutierrez ♦ Javier Iraeta ♦ Bixente Garmencia (zinegotzia) ♦ Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) ♦ Manuel Fernandez (Nagusilan) ♦ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Mailo (Apatxo liburu-denda) ♦ Jose Ramón Hernandez (Nagusilan) ♦ Juan Carlos Agirre (IES Olazabal) ♦ Ana Manzanos ♦ Jose Angel Uranga ♦ Iñaki Lopez de Urbina ♦ M^a Jose Cantero (Nagusilan) ♦ Iker Azurmendi (Goieki) ♦ Montse Vallejo ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

OHARRA: Ezin duela etorri adierazi du Jon Erramun Uribeetxeberriak (udaletxeko Agenda 21eko zinegotzia)



● Tailerrean aztertu diren bestelako gaiak

2010eko Udalsarea 21 sariaz gain, gaurko aztergaien artean honako hiru gai hauek ditugu:

1. Aranzadiko taldeak Joan den azaroaren 4ko tailerrean aurkeztu zuen "Legazpiko kultur eta natur ondarearen inbentarioa" izeneko txostenean jasotako ideia nagusiak **jaso eta alderatu**.
2. 2010eko **ebaluazioa**, Agenda 21eko Foroaren ikuspuntutik.
3. 2011. Urterako Udalak aurreikusi dituen Agenda 21eko ekintzak ezagutu eta Foroak landu nahi dituenak **lehenetsi**.

Segidan, gai bakoitzaren gainean jasotako ideia nagusiak eta emaitzak bildu ditugu.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

1. Legazpiko natur eta kultur ondarearen inbentarioa: Zein da gure iritzia azkeneko tailerrean Aranzadi elkarteak eskaini zizkigun ideiei buruz?

Joan den azaroaren 4ko bileran, denbora agortu zitzaigun eta, orduan, Aranzadiko taldeak azaldu zuenaz hitz egiteko betarik izan ez genuela uste dugu. Beraz, orain taldeak du hitza:

Hau da taldearen iritzia:

- “Aranzadiko taldeak egin duen azterketaren planteamendua, gaia nola tratatu den eta atera diren ondorioak zuzenak direla uste dugu”.
- “Legazpin dugun natur eta kultur ondarea gordetzeko eta hobetzeko helburuarekin bukaeran proposatu ziren ekintzak interesgarriak izan ziren”.
- “Eta horietatik, batzuk harrিতa hartu genituen, adibidez:
 - Zeharkako korridorea sortzeko proposamena (eraztun motako korridorea sortzeko ideia “tradizionalaren” aurrean).
 - Azterketaren emaitzak udaletxean bertan zabaltzeko ideia, erabakiak hartzeko prozesuetan sartu eta aintzat har daitezen”.
- Azkenik, Sote Plazaolak hartu du hitza eta, azterketaren proposamen bati erantzunez, Udala Legazpiko hezeguneak Euskadiko Autonomia Erkidegoko zona hezeen Lurraldeko arloko Planean sar daitezen lanean ari dela adierazi du.



Garbi geratu da, Foro gisa gai hori gure gustukoa dela; beraz, 2011. urtean aukera izango dugu ekintza zehatzen bidez gai hori sakontzeko!

2. Urtearen ebaluazioa: Nolakoa izan da 2010 Legazpiko Agenda 21eko Foroarentzako?

Inmak gogora ekarri dizkigu aurtengo 2010eko urtean egin ditugun Agenda 21eko 9 bileretan aztertu ditugun gaiak. Gogoraraziz.....

Tailerra eta eguna	Aztertutako gai nagusiak
<ul style="list-style-type: none"> • 1. Tailerra, otsailak 4 	Mugikortasun iraunkorreko planean jasotako proiektuak (Santikutz kalean espaloia zabaldu (Meazti Etxe parean), Santikutz kalean bidegorria egokitu, Kultur Etxea Juanastegi kalearekin lotuko duen ibilgailua jarri...)
<ul style="list-style-type: none"> • 2. Tailerra, martxoak 4 	Legazpiko natur eta Kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa (I).
<ul style="list-style-type: none"> • 3. Tailerra, martxoak 25 	Informazioa, etxean eta bizilagunen komunitateetan energia aurrezteari buruz (Euskal Energiaren Erakundea).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Tailerra eta eguna	Aztertutako gai nagusiak
• 4. Tailerra, apirilak 22	Milurtekoaren helburuak, Legazpiko ikastolako eta institutuko batxilergoko gazteen parte hartzearekin.
• 5. Tailerra, maiatzak 13	Merkataritza berdea Legazpin: emandako urratsak eta neurri berriak.
• 6. Tailerra, ekainak 7	Industrialdeko errotonda, eztabaidan.
• 7. Tailerra, urriak 7	Legazpiko Mugikortasun iraunkorreko plana: martxan jarritako jardueren balorazioa eta Udalak aurreikusitako proiektuak.
• 8. Tailerra, azaroak 4	Legazpiko natur eta Kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa (II).
• 9. Tailerra, abenduak 2	Urteko ebaluazioa eta 2011. Agenda 21eko Foroan landu nahi diren ekintzak lehenetsi.

Naturaren gaineko gaiak, mugikortasuna, kontsumo arduratsua, hirigintza,... izan dira, neurri handi batean, gure denbora eta hausnarketa bete duten gaiak. Gainera, Inmak urte hasieran ezarri genituen lehentasunetatik bat geratu zaigula egin gabe adierazi du: baserriarekin elkar lanean tokiko produktuen ekoizpena eta kontsumoa bultzatzea. Datorren urterako zerrendan utziko dugu!

Orain, Foroko parte-hartzaile eta protagonista garen aldetik, oro har *nola baloratzen dugu urteko lana?*

Hau da taldearen iritzia:

- "Landu ditugun gaiak interesgarriak izan dira".
- "Horrezaz gain, egiten eta proposatzen duguna zerbaitetarako balio duela ikusten da; poliki-poliki erabakiak gauzatzen doaz".
- "Inportantea eta baloratzekoa da gobernu-taldea tailerretan parte hartzea eta hemen eztabaidatzen dena udal politikan sartzea". Eta gainera, gero sari bat jasotzen badugu,... ezin hobeto!"
- "Gustukoa dugu tailerren antolaketa; gustura gatoz, eroso sentitzen gara eta horrela erraza da parte hartzea".
- "Behin baino gehiagotan aztertu dugun eta buruhaute bat baino gehiago ekarri dugun mugikortasunaren gaian, gauzatxoak ikusten dira dagoeneko, aurrerapenak daude. Herri osoak mugikortasunari buruz pentsatzen duena aldatzea oso zaila da eta, horren aurrean, zerbait lortzen hasi garela uste dut".
- "Niretzat, saio hoberenak kontsumo iraunkorrari buruzkoa eta kultur eta natur ondarearen inbentarioari buruzko biak izan dira".
- "Iritzia sortzen jarraitu behar dugu, gaiak kalera ateratzen eta, ondoren, politiko gisa, iritzi horiek barneratu eta gure eguneroko lanean landu behar ditugu".
- "Niri neska-mutikoekin batera egin genuen tailerra eta bertan sortu genuen giroa gustatu zitzaidan".
- "Denbora hobeto antolatu eta bete behar dugu, bilerak luzeegiak izan ez daitezen".



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Zati hau bukatzeko, Foroaren bestelako ekarpenak bildu ditugu. Ondoren, hona hemen erantzun beharreko eskariak:

Eskaria:



- **Motxorro aldean espalaira ateratzen diren adarrak garbitu eta moztu:** Taldeko pertsona batzuk adarrak asko luzatu direla eta bertatik oinez ibiltzea eragozten dutela esan dute. Udal ordezkariak ibai-ibilguen mantentze-lana URA (Uraren Euskal Agentzia) izeneko erakundearen eskumena dela zehaztu dute. Gainera, gaur egun helburua ibaiertzeko landaredia babestea eta ibai-ibilguak modu naturalean mantentzea da. Dena den, zonalde hori nola dagoen aztertuko dute, hartu behar diren neurriak zeintzuk diren ikusteko.
- **Kale Nagusia:** Goitik behera txukundu beharra dauka (batik bat argiaren kontua).

3. 2011rako aurreikusi diren Agenda 21eko ekintzetatik, zeintzuk nahiko zenituzke Foroan landu? **Lehentasunak.**

Hauxe izan da gure gaurko azkeneko lana. Eta arin egin dugu: lehenbizi Inmak aurreikusitako ekintzak adierazi ditu eta, ondoren, botazioa egin eta bakoitzak bere iritzia eman du.

Hurrengo orrian ikus daitekeenez, *taldearentzat ondoko hauek dira lehentasunezko 6 ekintza:*



Foroak 2011. urterako lehenetsi dituen Agenda 21eko ekintzak:

- Aranzadi elkarteak egin duen azterketatik sortutako ekintza zehatzen bat martxan jartzea. (8 boto)
- Proposamena: hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida. (8 boto)
- Airearen kalitatearen gaineko datuak aztertu eta datu horiek landu. (7 boto)
- Merkatariak inplikatu produktu berde gehiago eskain ditzaten eta legazpiarrak produktu horiek erostera bultzatu. (6 boto)
- Energiaren Euskal Erakundeak udal eraikinetako energia-kontsumoari eta herriko argiei buruz egin duen azterketaren emaitzak. (5 boto)
- Elkarrekin akordioak lortzea (ad. merkatariak, elkarte gastronomikoak, kirol elkarteak...) aztura iraunkorrak hartzeko: birziklatutako papera erabiltzea, bilgarri gutxiago erabiltzea, plastikozko poltsen erabilera murriztea ... (5 boto)

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Ekintza-planaren aipamena	2011 rako aurreikusitako jarduerak	¿Zein da Foroaren lehen tasuna?*
1.1. NATUR ONDAREA	Aranzadi elkarteak egin duen azterketatik sortutako ekintza zehatzen bat martxan jartzea.	●●●●●●●● (8)
1.2.3. DIBULGAZIOZKO MATERIALA	Herritarren eskura jarriko den inbentarioaren laburpena Foroarekin alderatu.	
1.2. NATUR INGURUNEAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA	Natur ingurunearekiko sentsibilizazioa lantzeko ekintzaren bat martxan jarri.	●●●● (4)
1.5.2. HAURTZAROA ETA INGURUMENA PROIEKTUA	Airearen kalitatearen datuak aztertu eta landu.	●●●●●●●● (7)
2.1.7 BIDEGORRA	Txorroneatik kiroldegira joateko bidegorriaren bi tarteak diseinatu eta informazioa eman.	
2.1.11. MUGIKORTASUN AZTURAK	Batetik bestera ibiltzeko ditugun ohiturak aldatzeko sentsibilizazio-ekintzak egiten jarraitu. Adibidez, erosketak egitera oinez joan.	● (1)
5.1. ESKOLAKO AGENDA 21	2010-2011 ikasturteko gaiari buruz Eskolako Agenda 21eko gaztetxoaren foroa: mugikortasuna.	● (1) X (apirila)
2.5.4. ENERGIA	Energiaren Euskal Erakundeak udal eraikinetako energia-kontsumoari eta herriko argiei buruz egin duen azterketaren emaitzak.	●●●●● (5)
2.5.4. ENERGIA	Energia-eraginkortasunerako neurriei eta etxean energia berriztagarriak jartzeari buruz herritarrak informatzeko ekintzak.	●● (2)
3. KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUA	Merkatariak inplikatu produktu berde gehiago eskain ditzaten eta legazpiarrak produktu horiek erostera bultzatu.	●●●●●● (6)
3.2.3. ABELTZAINZA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ETA/EDO LOKALA	Abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoa eta/edo bertakoa lagundu, salmentarako doako eremuak eskainiz.	●● (2)
3.3.1. HONDAKINAK	Hondakinen sorrera gutxitzeko sentsibilizazio-ekintzak.	●●● (3)
3.3.1. HONDAKINAK	Proposamena: debatea hondakinen kudeaketari buruz.	●●●●●●●● (8)
5.4.2. EGUNEROKO BIZITZAN BALOREAK SUSTATZEA	Gizarte zerbitzuen proposamena: Teatro Forum solidarioa.	
8.4.3. AKORDIOAK ELKARTEKIN AZTURA IRAUNKORRAK SUSTATZEKO	Elkarteekin lor daitezkeen akordioak landu (ad. Merkatariak, elkarte gastronomikoak, kirol elkarteak,...) aztura iraunkorrek hartzeko: paper birziklatua erabiltzeko, bilgarri gutxiago erabiltzeko, plastikozko poltsen erabilera murrizteko,...	●●●●● (5)
8.4.1. GAZTERIAEN PARTE HARTZEA AKTIBOA	Gazte-txokoarekin Gaztetxearekin, nerabeekin, gazteekin, ... lan egin, Agenda 21eko ekintza zehatzak burutzeko.	X
8.4.2. SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE HARTZE AKTIBOA AZTURA IRAUNKORRAK HARTZEKO	Proposamena: kutsadura elektromagnetikoan aditua den pertsona ekartzea.	●●● (3)

* OHARRA: gurutzera dutenak Udalak datorren urtean landu beharrekoak direla erabaki du..



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Puntualki, tailerra bukatu eta **agur esaten diogu elkarri,** datorren urtera arte!

Ezarri ditugun lehentasunak berrikusi ditugu eta taldean horiek nola aztertuko ditugu pentsatu ondoren, amaitutzat eman dugu gaurko tailerra. Puntu-puntuan, bestela...

Bukatzeko, azkeneko desioa: Benetan goza ditzazuela urteko azkeneko egunak eta, zuen gogoarekin eta laguntzarekin, hemen izango gara berriro 2011n Legazpi iraunkorragoaren alde lan egiteko prest!

Ah, eta ez ahaztu *liburuxkatxoa* sortuko zaizkizuen ideia guztiak bertan jasotzeko, gero guztiokin konpartitzeko!

Eskerrik asko guztioi!

Eta urte zaharra ongi amaitu eta berria hobe has dezazuela!